

EZ ETSI AURKITU ARTE!

Bazen behin Harrizuri izeneko neska bat bere txakurrarekin bizi zena. Donostian bizi zen. Neska alaia zen. Kirola eta bidaiatzea gustuko zituen eta errenditzen ez zen horietakoa. Harrizuri aspertuta zegoen hainbeste euri egiteaz eta hondartzara ezin joan izanez, Koldo Mitxelena liburutegira joatea bururatu zitzaion. Txokolate bero bat hartu eta ea lagunen bat topatzen zuen, komikiak elkarrekin irakurtzeko. Baina ematen zuenez, bere lagunek beste planen bat egin zuten eta liburuak miatzen hasi zen. Apalategira begira jarrita eta bat-batean jaustera zihoan liburu zahar bat ikusi zuen. Liburuaren orriak horituta zeuden eta zabaldu zuenean hautsa sudur zuloraino iritsi zitzaion.

Eztula egin eta halako batean, liburuan mapa bat ikusi zuen eta bertan altxor baten marrazkia. Berehala liburua hartu eta:

- Topatu egin behar dut!- esan zuen Harrizurik.

Etxera joaterakoan Xibirtonek zaunka ozen egiten zuen.

Bazekielako bidaia polit bat izango zela maletak eta motxilak prestatu eta Bilboko aireportura abiatu ziren. Lehenengo geltokia Alemania zen baina Harrizurik ez zekien alemanieraz. Orduan Xibirtonek zaunka egin eta Berlingo hartzarengana eraman zuen. Hartzak atzaparrak luzatu eta beste pista bat eman zion. Hurrengo pista Txinan zegoen:

- Puf ze urruti! - esan zuen Harrizurik.

Ez zekien nola joan eta bat-batean konturatu zen ez zuela dirurik eta auto-stop egitea bururatu zitzaion, zorte ona eduki zuten eta aberats jator batzuk hartu zituzten, oso txakur zaleak ziren eta. Horrela heldu ziren Txinaraino eta aberatsek diru pixka bat eman zieten jateko, edateko eta hurrengo geltokira heltzeko. Txinan tigre berezi bat topatu behar zuten eta Xibirtonek usandu egin zuen. Tigrea, lotan zegoen baina bere hankan itsatsita hurrengo pista zeukan. Australiako kanguro baten poltsan bilatu behar omen zuten. Australiara iristeko aberatsen emandako txanpon batzuk zituzten eta itsasontziko bi billete erosi zituzten. Hilabete itsasontzian pasa zuten eta lagun asko egin zituzten. Lagun haietako batek, Jonek, esan zien:

- Kanguroak desertuan bizi dira.

Horrela abiatu ziren desertura eta lehenengo kanguroa ikusi zutenean, honek bere poltsatik papera atera zuen hurrengo pistarekin. Hawaii zuten hurrengo helmuga eta dordoka bat aurkitu behar zuten. Itsaso gardenean igeri egiten ari ziren dordoka erraldoien artean ikusi zuten eta bere oskolaren gainean hurrengo pistaren marrazkia topatu zuten eta gainera azken pista zen. Brasilera iristeko dirua justu-justu zeukaten berriz hegazkina hartzeko Brasilera iritsi eta airepotuan lorito batek:

- Harrizuri!!! zure azkenengo pista Rio de Janeiron dago - esan zuen loritoak.

Taxi bat hartu eta hara joan ziren, heltzean konturatu ziren oinez igo beharko zutela ez zutelako dirudik trena pagatzeko edo bestelako garraioak ere pagatu egin behar zirelako, ordu bat tardatu zuten erdia igotzen, oso

nekatuta zegoen Harrizuri baina Xibiritonen laguntzarekin lortu zuten igotzea.

Azkenik tontorrera iritsi zirenean, Harrizuri oso nekatuta zegoen, baina Xibiriton lurra usaintzen hasi zen. Toki batean gelditu eta zaunka egin zuen. Harrizurik lurra pixka bat kendu zuen eta kutxa zahar bat aurkitu zuten.

Poliki ireki zutenean barruan urrezko giltza bat zegoen. Harrizuri harrituta geratu zen eta giltza eskuetan hartu zuen. Ez zekien zein ate irekitzen zuen, baina ziur zegoen zerbait berezia zela.

Harrizurik eta Xibiritonek elkarri begiratu zioten pozik. Bidaia luzea egin zuten: Alemania, Txina, Australia, Hawaii eta Brasil ezagutu zituzten. Lagun berriak ere egin zituzten bidean.

Azkenean, oso pozik eta nekaturik, etxera itzultzea erabaki zuten, jakinda abentura handia bizi izan zutela eta agian urrezko giltzak beste abentura berri bat irekiko zuela etorkizunean.

Izargu

Ezizena